

Elgoibar - 1261. zerb.
XXX urtea - 2022-10-21



TOKIKOM

BARREN

Sallobenteko elkarteak, 50 urte





Erreserbatu gure
Tripontziak menua!

2022 // DEBABARRENA

Azaroaren 4tik 27ra



EIBAR
Bidebarrieta 39, behea, eskuina, 20600
943 84 55 03
baratztegourmet.com



ITZIAR - DEBA
Itziar auzoa 2
943 19 90 35
www.hotelkanala.com

Bolubarriko barazkiak salteatuta foie gras
krematsuaeren gainean

Alkorta bakailaoa tenpuran, kalabaza eta
puntalette risottoarekin
Brioxezko rock-and-rolla, teriyaki masailaz,
ozpinetako tipulaz eta micromezclum nahasketaz
betea

Mendaroko txokolategen egindako mousse beroa
basoko fruten konpotarekin

Etxeko aperitiboa

Arrain- eta itsaski sopa Kanala erara

Bakailao-takoa porrusalda-aparrarekin eta baratzuri
konfitatuarekin

Euskaltzerri saiheksia labean tenperatura baxuan erreta

Mendaroko txokolate zuri eta beltzezko erdi-hotza



ERMUA
Erdikokale 19
943 54 35 80
Mendiola Jatetxea



MUTRIKU
Laranga auzoa z.g.
943 60 32 42
www.pikua.es

Cherry tomate, aguakate eta micromezclum entsalada,
pipar ozpin-olioarekin

Alkorta bakailao-tinbala, gure kostaldeko
txangurro-pilpilearekin

Euskaltzerri azpizuna wok-ean egindako barazkiekin
Gaiza-tarta krematsua Mendaroko txokolategarekin

Bakailao-brandadarekin egindako tosta

Ganboi entsalada, fruitu gorritz egindako
ozpin-olioarekin

Begi handia parrillan bere tintan

Txerri-azpizuna Porto saltsan barazki-ohere gainean

Mendaroko 3 txokolategen tarta



Ezagutu Debabarreneko zaporeak!

Ekimenak irauten duen bitartean,
asteburuetan zatotz eskualdeko produktuak
nola egiten diren ikustera, eta noski,
dastatzera ere.

Doan

IZENA EMATEKO:

☎ 943 82 01 10

Ast-Ostir. 08:00-15:00

turismoa@debegesa.es

Plazak agortu arte

AZAROAK 5, larunbata
Azpilgoeta 21, 20850 Mendaro, Gipuzkoa

Chocolates de Mendaro 11:00-11:30
Txokolaterik onena, 150 urte dituen errota batean egina

AZAROAK 12, larunbata
Olatz Auzoa, 20830 Mutriku, Gipuzkoa

Goienetxe Gaztandegia 11:00-12:30
Ezagut izazua Artzai Gaztaren sekretuak

AZAROAK 19, larunbata
San Nikolas Plaza 5, 20829 Lastur, Gipuzkoa

Lasturko Talo tailerra 11:00-12:30
Ikasi taloak Lasturko eran egiten

AZAROAK 27, igandea
Azkué Auzoa, 20870 Elgoibar, Gipuzkoa

Lizagasar Sagartokixa 11:00-12:30
Ezagutu sagarrak eskaintzen dituen aukera guztiak



SORALUZE
Txurruka Auzoa 11
943 75 15 81
www.txurruka.es

Espinaka-entsalada epola, ahuntz-gaztaz, urdailaz
eta ezti olio-ozpinaz

Legatza plantzan tenpuran egindako Itsasoiko
barazkiekin

Euskaltzerri urdai eta saiheks xehatua Pedro
Ximenez saltzarekin

Mendaroko 3 txokolategen gure postrea

Menua 32€

BEZ barne IVA indarreko



Jatetxe guztietan botila bat aukeran:
Sagardoa, Txakolina edo Arabar Errioxako ardoa.
Ura eta kafea barne.

#Tripontziak
#Debabarreña

@debabarrenaturismo
@DebabarreñaTur
Debabarreña Turismo

www.debabarrenaturismo.com



Argitaratzailea:



BARREN

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazaleen Topagunea

Babeslea: Laguntzaileak:

ELGOIBAR
UDALA
JURFUNDAMENTOMENDARO
1993

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR - 943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren@elgoibarkoizarra.eus
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus




instagram.com/barrenaldizkaria

Juan Luis Mugertza

Idazlea

Ondo idazteko, zer egin?



***"Euskara aberastu.
Euskaraz txukun idazteko
ur gozoa edan behar da"***

Gauza asko, baina jorratu beharreko ibilbidean noraezean ibil ez gaitezen, Gotzon Garatek aholku batzuk emango dizkigu.

Lehenengo puntua. Zaletasuna. Gogoz kontra ezin da ezer egin. Idazle izan nahi duenak idazteko beharra izango du. Sabeleko mamorra ate joka arituko zaio, eta idazteko atea zabaldu behar izango dio asetuko badu.

Bigarrena. Irakurri eta idatzi. Hasiera batean liburu errazak, gustukoak, eta poliki. Zerbait interesgarria iruditzen bazaizu, azpimarratu edo koaderno batean idatzi, horrela berriro irakurtzen baduzu gordetako pasarteak baino ez dituzu irakurriko. Gero, literatura balio handikoak irakurri. Hasi, esaterako, idazle klasikoekin: Faulkner, Flaubert... Horrelakoen liburuak irakurritz gero, beti ikasiko duzu zerbait. Gauzak nola esaten dituzten; zer nolako ikuspuntua duten; kontalaria nor den...

Hirugarrena. Teoria. Ipar Amerikan oso zabalduta dago teoria irakurtzea. Faulkner-ek idatzitako lanen gainean kritika asko egin dira. Horrelakoen kritikaK irakurrita ikasten da nola idatzi, eleberriak nola eraiki, kontalariak nola erabili: orojakilea, hirugarren pertsona subjektiboa...

Laugarrena. Zertaz idatzi. Idazteko zentzu guztiak ipini behar dantzan, eta ahal badugu, munduan barna ibili, hemendik eta handik ikusten duguna xurgatzeko, bai etxean, bai kanpoan gauza asko gertatzen baitira. Beraz, bizitzak emango digu aukera idazteko, eta hori eleberrietan txertatuko dugu.

Bosgarrena. Euskara aberastu. Euskaraz txukun idazteko ur gozoa edan behar da. Baserritarrekin mintzatu, zazpi lurraldeetako euskaldunekin hitz egin, eta idazle klasikoak irakurri: Axular, Leizarraga... Horrelakoen liburuak irakurritz, egun galdutako esamoldeak, aditzak... ikasteko aukera izango duzu. Eta Auspoa argitaletxeokoe argitaratutako liburuak irakurri, bertan idazten dutenak euskaldun petoak baitira. Bukatzeko. Ekin lanari. Esandako guztia gogoan baduzu idazle ona izan zaitezke. Inoiz txapelketaren batean parte hartzen baduzu eta saririk ez baduzu irabazten, ez etsi, Dostoievski, Flaubert saririk izan gabe oso onak izan dira-eta.

BARENEk ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Txakurrak aske Mintxetan

Igande arratsaldean Mintxetako kirol eremuan gertatutakoak sorrarazi didan egonezina kaleratzeko asmoz idazten dut. Kanpoko pistatik korrika nebilela lau txakurrekin pasiaran zebilen bikote batekin gurutzatu nintzen. Mesedez txakurrak lotzeko eskatu nien. Jaramonik egiten ez zidatela ikusirik hurrengo itzulian eskakizun berbera gaztelaniaz errepikatu nien: *Por favor, podéis atar a los perros?* Nire harridurarako, lotzeko inolako asmorik ez zutela erantzuteaz gain, korrika egin nahi banuen barruko pistara joateko agindu zidaten. Nik, mesedez lotzeko, eta haiek, ezezkoan tinko. Hura mendia zela eta mendian txakurrek aske ibiltzeko eskubidea zutela. Elkarrizketa ezinezkoa zela eta lau txakurrek aske jarraituko zutela ikusirik, handik alde egitea erabaki nuen.

Gertaera deseoso hau salatzeaz gain, idatzi hau baliatu nahi dut txakurrak lotuta eramaten dituzten jabe guztiei eskerrak emateko. Mintxeta leku ederra da eta elkar errespetatuz guztiok kirolaz eta naturaz goza dezakegu bertan.

Elisabete Osoro Iturbe

BUELTAN DA ELGOIBARKO IZARRAREN TONBOLA!

1.000 erregalu baino gehiago...

Aurten bai! Aurreko urteetan **TONBOLAK** izan duen estimazioak bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera**, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu **Kalegoen plazan**. Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!

 <p>"Amona Tomaxaren abenturak" ipuinak</p>	 <p>"Irteera argiak" musika cd-a</p>	 <p>Pultserak</p>	 <p>Lisaburdina</p>	 <p>USB-ak</p>
 <p>Solarium bonoak</p>	 <p>Olentzero eta Mari Dominginen pin-ak</p>	 <p>Sukalderako laban sorta</p>	 <p>Kamisetak</p>	 <p>Motxilak</p>



643 499 169

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112




688 634 044



Etxeko atarian egin digute

kaka: "Ez dago eskubiderik.

Txakurra duenak bere txakurraren kaka jaso behar du. Etxeko atarian egin digute kaka, eta ez da lehenengo aldia. Txakur-jabe askok ez daukate errespeturik. Isunak jarri beharko lirateke".



Sigmako haur-parkea egoera txarrean dago:

"Udalak Sigma auzoa lagata dauka orokorrean, eta haur-parkea bera ere bai. Parkeko elementuak hondatuta daude, iltzeak aterata zenbait lekutan eta umeentzako arriskutsua da. Gure auzoan ere ordaintzen ditugu zergak, baina bueltan ez dugu ezer jasotzen".



Lurrazpiko edukiontzien eman zituzten arazoekin, zergatik mantendu dituzte

kale batzuetan?: Antonio Arrillaga kaleko edukiontzia erabiltzen dituen herritar batek azaldu du bere arazoa: "Oso aho estua eta deserosoa daukate, askotan ataskatuta egoten dira eta jendeak hondakinak kanpoan uzten ditu. Desabantailak baino ez dizkiot ikusten". Josu Arraiz Mankomunitateko presidentek azaldu duenez, espaloiaren zabalera, etxeen gertutasuna eta edukiontzien espaloi gainean jartzeak kale horretan sortu dezakeen "segurtasun falta" hartu dituzte irizpide moduan. "Kale horretan eskumako aldean jarri beharko genituzke lurrazaleko edukiontzia, eta lurrazpiko buzioak jartzeko baino espazio gehiago beharko genuke horretarako. Gainera, etxeetako balkoiak oso gertu daude eta kamioiarekin biltzeko arazoak sortuko lirateke".



'Ibai berria' diseinua aukeratu dute Santa Ana kaleko hormarako



Pablo Astrain artistaren *Ibai berria* diseinuak jaso du boto gehien, eta honenbestez, putzu batean salto egiten duen haurraren irudia da Santa Ana kaleko ertz batean dagoen etxebizitzako paretean margotuko dutena. Elgoibarko Udaletik jakitera eman dutenez, diseinu honek botoen erdia baino gehiago jaso ditu: herritarrek emandako 980 botoetatik 445. Bozketan parte hartu dutenen artean hiru erosketa bonu zozkatu ditu Udalak, eta Monica Andonegui Zubiaurre, Maite Cid Corbillon eta Ander Osoro Casquero izan dira irabazleak. Txankakua Merkatarien Elkartera atxikitako saltokietan gastatu ahal izango dituzte irabazitako bonoak.

Olaizaga kiroldegiko saunak ohiko ordutegia izango du berriro

Pandemia garaian, aforo murrizketagatik, Olaizagako saunaren erabilera ordutegia zabaldu egin zuten, baina aste honetatik aurrera lehengora itzuli da. Beraz, aurrerantzean, martitzen eta egunetan arratsaldez bakarrik irekiko dituzte, 15:00etatik aurrera. Gainerako egunetan 9:00etan zabalduko dute sauna.

Banatu dituzte San Antolin jaietako errifetan zozkatutako sariak



Arriagako San Antolin jaietan egin zuten errifetan zozkatutako irabazleak agertu dira, eta jai batzordeko kideek banatu dituzte sariak: Iñaki Arronak eskuratu du bi lagunentzako Kanariar Uhartetarako bidaiak, eta Xabier Uribeberriak, janariz eta edariz beteriko orgatila.

Azaroan hasiko da 'Auzoko Familiak' egitasmoa

Azaroan ekingo diote Auzoko Familiak (Hurbiltzen) egitasmoaren bigarren ikasturteari eta dagoeneko eman daiteke izena. Auzoko Familiak euskaratik urrun eta euskaratik gertu bizi diren familien elkarbizitzarako gune izateko sortu dute. Familiak dinamizatzaile batek gidatutako saioak egiteko edota familien artean adostutako ekintzak egiteko elkartzen dira. Parte-hartzea borondatezkoa, librea eta doakoa da.

Elgoibar Ikastolan, Herri Eskolan, HAZen, udal ludotekan edo Elgoibarko Izarrako bulegoan eman daiteke izena.

Ekimena Udalak jarri zuen martxan Elgoibarko Izarrarekin joan den ikasturtean, Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin.

Abian da aniztasun funtzionala duten nerabe eta gazteentzako 'Elgoibar mugimenduan' ekimena

Elgoibarko Udalak eta BASH taldeak mugimendu eta sormen saioak sustatzen dituen *Elgoibar mugimenduan* ekimenaren bigarren ikasturtea abiatu berri dute elkarlanean. Abendura bitartean bost saio egingo dituzte, domeketan, 17:30etik 19:30era. Helburua talde lanean aritzea dela azaldu dute, "bederatzi inteligentzia multiploak landu, pertsona ahaldu eta batez ere ondo pasatzea". Saioak doakoak dira.



Heriotzarekin loturiko hainbat ekintza egingo dituzte datorren astetik aurrera

Heriotzari bizia ematen egitasmoa antolatu dute Almaur elkartearen bitartez, eta horren barruan hainbat ekintza egingo dituzte datorren astetik aurrera. Hasteko, *Hil aurretik nahi dut* ekimenaren bidez mural bat jarriko dute hilaren 27an Aita Agirre kultureguneke sarreran, eta herritarrek beraien hausnarketak jendaurrean partekatzeko aukera izango dute. Egun berean, hilaren 27an, 18:30ean, Death Cafe saioa egingo dute Kultur Etxeko hitzaldi-gelan. Izena emateko <https://labur.eus/deathkafea> helbidean

sartu behar da. Death Cafe heriotzari buruzko eztabaida-foroa da, gidoi itxirik eta helburu zehatzik gabe. Helburua heriotzaren kontzientzia soziala sustatzea da, hainbat ikuspuntutatik, bizitza baloratzeko eta heriotzarekin zerikusia duen guztiaz hitz egiteak dakarren tabua apurtzeko. Ez da dolurako laguntza, ezta esperientzia pertsonalei laguntzeko leku bat ere.

Elgoibarko Udalak, Euskadi-Elgoibar Lagunkoiak eta Almaur elkarteak sustatu dute ekimena.

Kultur Etxe atzeko zubia konpontzen ari dira



Goiko Errota zubiko zoladura berritzeko lanak amaitu ostean, Kultur Etxe osteko zubia berritzen ari dira. Zurezko itxura duten birziklatutako plastikozko lamak jarri dituzte bi zubietan, material birziklatu eta birziklagarria. Goki Erreformak enpresa ari da berritze lanak egiten, eta 39.641,18 euroko (BEZ kontuan hartu gabe) aurrekontua dute.

Bikote harreman osasuntsuei buruzko ikastaroa antolatu du Berdintasun Sailak

Lotura afektiboak eta bikote harremana osasuntsua izateko eman behar diren ezaugarriak zein diren argitzeko ikastaroa emango dute Lilan, emakumeentzat, azaroaren 8tik 28ra, martitzenero, 18:00etatik 20:00etara. Zer da harreman toxiko bat? Nola atzeman daiteke? Eta nola bereizten da harreman osasuntsu batetik? Arlo sentimentalean soilik ala sozialki eta familiarean ere eman daiteke erlazio toxiko bat? Galdera horientzako erantzunak elkarrekin bilatuko dituzte Eider Perez coach elgoibartarrak gidatuko duen ikastaroan parte hartzen duten emakumeek. Azaroaren 2a izango da izena emateko azken eguna. Informazio gehiago 943 741 050 telefonoan.

Administrari laguntzaile postua betetzeko deialdia egin du Udalak

Elgoibarko Udalak administrari laguntzailearen lanpostu bat betetzeko deialdia kaleratu du Lanbiderekin elkarlanean. Lanaldi osoko postua izango da, lau hilabeterako. Lanpostu honekin Kultura Sailaren komunikazioa hobetu nahi da, bere jarduerari buruzko informazioa herritarrei emanez. Horretarako, mailingak egingo dira herritarren kontaktuekin, komunikabideekin eta abarrekin. Sare sozialetako ezagutzak balio erantsia izango dira. Ezinbestekoak izango dira ondorengo baldintzak: Erdi edo goi-mailako zikloa Administrazio eta Finantzetan, EGA, administrazio-prozeduren ezagutzak, aplikazio informatikoekin kudeatzeko trebetasunak, langabezian egotea eta Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta egotea, eta Elgoibarren, Mendaron, Soraluzen, Deban edo Mutrikuen erroldatuta egotea. Izena emateko: www.lanbide.eus.

Azaroaren 12rako iragarri du Galizia Etxeak Magosto jaia



Bi urteko etena egin dute, pandemiak behartuta, baina aurten, udazkeneroko ohiturari eusteko apustua egin du Galiziako Etxeak. Azaroaren 12an ospatuko dute Magosto jaia, Maalako parkean. 200 kilo gaztaina enkargatu dituzte Ourensera (Galiziara) eta azaroaren 12an erre eta debalde banatuko dituzte. Era berean, Galiziako produktuak erosi eta dastatzeko aukera ere izango dela jakinarazi dute.

Bigarren eskuko azoka antolatu dute Mendaron domekarako



Domekan, urriaren 23an, bigarren eskuko azoka egingo dute, 10:00etatik 15:00etara. Herritar talde batek antolatu du, Udalaren laguntzarekin, eta jakinarazi dute arropak, dekorazio elementuak, jostailuak, liburuak eta apaingarriak ere izango direla. Birziklatzearen eta berrerabilpenaren kultura sustatzeko antolatu dute azoka.

Elgoibarko EHBilduk batzarra egingo du martitzenean

Elgoibarko EHBilduk herri batzarra egingo du datorren martitzenean, urriaren 25ean, *Abante!* lemapean. Rebeka Ubera izango da hizlaria, eta egungo kokapen politikoa eta hauteskunde prozesua izango ditu hizpide. 18:30ean izango da saioa, Kultur Etxeko hitzaldi-gelan.

Hainbat ekitaldi izango dira datozen egunetan Lilan

Lila emakumezkoen etxean *Amatu* liburua aurkeztu zuen atzo Maite Lopez Las Herasek, eta datozen egunetan ere hainbat ekimen izango dira bertan. Astelehenean, esaterako, hausnarketarako tailerra egingo dute. *Pornoa Vs. bizitza erreala* izango da saioaren izenburua eta Loredi Salegik gidatuko du. 18:00etan izango da. Hilaren 26an, berriz, urrutiko amatasunari buruz berba egingo du Norma Vazquezek, 18:30ean hasita. Hitzaldi hau gaztelaniaz izango da.



Aitziber Cortazar, Debegesako Garapen Jasangarria saileko burua:

“Energia Bulegoak lehen pausoak ematen lagundu nahi die erabiltzaileei”

Debegesak ENERGIA BULEGOA garatu du eta Aitziber Cortazarrek bertan eskaintzen diren zerbitzuen berri eman digu.

Zein da Energia Bulegoaren funtzio nagusia?

Debabarreneko zortzi udalerriek eskaintzen duten zerbitzua da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak diruz lagunduta, eta zenbait funtzio ditu. Herritarrei zuzenduriko alderdiari dagokionez, eraginkortasun energetikoa sustatzea eta energia berriztagarriak ipintzea dira helburu nagusiak.

Horretarako, zer eskaintzen duzue?

Alde batetik, Debegesaren web orrialdearen banean Energia Bulegoaren atala dago: energia.debegesa.eus. Energia berriztagarrien (panel fotoboltaikoak, panel termikoak, geotermia, aerotermia eta biomasa) eta birgaitze iraunkorren (teillatuak birgaitzea, igogailua instalatzea edo aldatzea, berogailuen instalazioa...) inguruko oinarrizko informazioa modu didaktikoan jaso daiteke bertan. Gainera, faktura elektrikoa optimizatzeko aholkularitza zerbitzua eskaintzen dugu.

Webguneko informazioaz gain, norbanakoek euren kasu zehatzetan inguruko zalantzak argitu dezakete?

Bai. Horretarako bi bide ditugu. Batetik, webgunearen bitartez gurekin harremanetan jarri daitezke inprimaki batzuk betez eta argitu nahi den gaia zehaztuz. Bestetik, 943 82 0110 telefonora deituta hitzordua eskatu daiteke Debegesan, edota email bitartez kontsulta bideratu: agenda2030@debegesa.eus

Energiaren gaia ahozahoz dabil. Garrantzi berezia hartu du gaur egun Energia Bulegoak?

Debegesak aspaldi landu ditu energiaren inguruko gaiak eta, eboluzio naturalari jarraituz, gaur egungo egoerarekin egin du bat. Energiaren prezioak nola dauden ikusita, egia da orain



Aitziber Cortazar Debabarreneko Garapen Agentziako Turismo eta Garapen Jasangarria saileko arduraduna da.

dela urtebete inork egingo ez litzukeen planteamenduak egiten ari direla orain. Zentzu horretan, Energia Bulegoak lehen pausoak ematen lagundu nahi die erabiltzaileei. Esate baterako, komunitate bateko bizilagunek eguzki-plakak instalatu nahi badituzte, zein pauso eman behar duten argitzen diegu, dirulaguntzen inguruko informazioa eskaintzen dugu, tramitazio legalaren ingurukoa... Horretarako, laguntze aldera, kontsulta egiten dutenen aldetik ahalik eta informazio gehien jasotzea komeni da, gero eta erantzunik zehatzena emateko.

Enpresentzako zerbitzuak eskaintzen dituzue?

Bai. Esate baterako, energia fotoboltaikoa ekoizteko duten gaitasuna neurtzen diegu. Azken urtean, 30 enpresa baino gehiagok erabili dute zerbitzua. Orain, turismo sektoreko enpresei energia analisi auditoretza egitea eskaintzen ari gara, energia berriztagarriak ipintzeko zein aukera izan ditzateketen ikus dezaten.



50 URTE AUZOA EGITEN

✍ Ainhoa Andonegi / 🗣 Asier Orbea

Sallobente elkarateak 50 urte bete ditu, eta joan zen zapatuan ospatu zuten urteurrena. 200 bat lagun batu ziren ospakizunean, denak auzotarrak, eta tartean, Sallobente Elkaratearen sortzaileetako zazpi ere bai: Sebastian Gorrotxategi, Joxe Bollar, Isaac Osoro, Felix Juaristi, Sabin Txurruka, Kasiano Altuna eta Alberto Aldazabal. Omenaldi berezia egin zieten hasierako haiei, eta baita bazkide gazteei ere, beraiek direlako etorkizuna. Elkaratearen historia errepasatu zuten ekitaldian, eta historia hori biltzen duen liburua ere aurkeztu zuten. Jasone Osoro kazetari eta idazle elgoibartarrak ondu du liburua auzotarren istorio eta testigantzekin. Ospakizun xumea bezain hunkigarria izan zen.

Sallobente elkaratea 1972an sortu zuten, baina Jasone Osorok elkaratearen historia biltzen duen liburuan idatzi duenez, urtebete lehenago hasi ziren elkaratea sortzeko lanetan. Auzoko gazte kuadrilla bat Sallobenteko tabernan lekurik gabe geratu zen domeka batean hasi zen dena. Garai hartan San Lorentzo taberna lepo betetzen zen, bai auzotarrez eta

baita kaletarrez ere, eta iraileko domeka batean, mahairik gabe geratu ziren auzoko lau lagun. Haietako batek pentsatu zuen ogitartekoak eta edariak tabernan erosi eta eskola zaharra egon zen lokalera joatea. Lokala zabalik egoten zen, eta hala, lau lagun horiek eskola zaharrean egin zuten hamaiketakoa. Gustura egon ziren han, berriketan, barrez eta lasai.

Egun hartakoa ez zen, baina, gertakari puntuala izan, eta astero errepikatzea proposatu zuen lagunetako batek. Komentario hura zurrumurru bihurtu zen, eta bolo-bolo zabaldu zen eskola zaharra egon zen lokalean elkaratea zabaltzeko asmoa zegoela. Astebete geroago laukote hura ez zen bakarrik egon eskola zaharrean. Jende gehiago batu zen, eta orduan bai, elkarate bat sortzeko lehen urratsak ematen hasi ziren. 1971ko irailaren 21a zen, eta elkaratearen izena ere pentsatu zuten: Lagun Artea.

Elkaratea sortzeko baimenak eskatu zituzten ondoren, Elgoibarko Udalean eta Lehen Hezkuntzako Ikuskaritzan, lehenengo. Haien

Domeka batean Sallobenteko tabernan mahairik gabe geratu zen lau laguneko kuadrillari bururatu zitzaion eskola zaharra egon zen lokalean elkaratea sortzea



baietza jaso ostean, Iriarte baserriko Joxe Arrizabalaga auzo alkatearekin eta Carlos Agirre parrokoarekin ere jarri ziren harremanetan. Ez zuten arazorik izan bi horien oniritzia jasotzeko ere, baina baldintza bat jarri zieten: Maiordomoari urtean 2.500 pezeta ordaindu beharko zizkion elkarteak. Eta baldintza hori gaur egun ere oraindik indarrean dago. Elkarteak 16 euro ordaintzen dizkio maiordomoari eta diru hori elizaren kutxara bideratzen da, konponketetarako bereziki.

Baimen guztiak eskuratu zituztenean, gutun bana bidali zuten auzoko baserri guztietara. Elkarte sortzeko ideia zegoela azaltzen zuten gutunean, eta 21 urtetik gorako guztiei egin zieten bazkide izateko gonbitea. 1.000 pezetako kuota eskatzen zen bazkide bakoitzeko, eskola zaharreko lokalean obrak egiteko. 29 auzotarrek eman zuten izena, eta hori izan zen Sallobenteko elkartearen hasiera.

Behin-behineko zuzendaritza taldea osatu, eta 1972ko otsailaren 2an bidali zuten sorrera akta Gobernu Zibilera. Berehala jaso zuten erantzuna, eta ez esperotakoa. Lagun Artea izena ezin zuten erabili, bazegoelako aurretik antzerako izena zeukan beste elkarte bat. Azkenean, Sociedad Cultural Recreativa Sallobente izena jartzea erabaki zuten, eta 1972ko apirilaren 6an hasi zuten ibilbidea.

ELKARTEA ETA ELIZA

Sallobenteko elkartearen historia elizari lotuta

29 auzotarrek eman zioten baietza 1971n Sallobenteko elkarte sortzeko ekimenari. Bakoitzak 1.000 pezeta jarri zituen, eskola zaharra egon zen lokala berritzeko

ageri da, eta 1989an ermita berritzea erabaki zuten. 125.000 pezeta jarri zituen elkarteak, eta horrez gain, auzotarrak lanean aritu ziren. Hasieran teilatua konpontzeko asmoa zuten, baina hormek ere berritzeko beharra zutela ikusita, Jose Luis Beloso apaizak hiru erretaula neoklasikoak garbitzeko eskatu zion Elizbarrutiko artelaren kontserbaziorako arduradunari eta lan horietan Erdi Aroko margoak (XIII. mendekoak), Errenazimendu garaikoak (XVI. mende inguruak), gotikoak, berant erdi arokoak, Neoklasikoak (XVIII eta XIX. mendekoak) agertu ziren. Ekain eta Altzerri kobetako pinturen ostean, Sallobentekoak dira Gipuzkoako pintura zaharrenak. 1996ko azaroaren 27an inauguratu zituen margo horiek Jose Antonio Ardanza lehendakariak.

EMAKUMEZKOAK ELKARTEAN

Bazkide emakumezkoak onartzearen kontuak tira-birak sortu izan ditu elkarte askotan, baina Sallobenten ez dute inoiz erreparorik izan



horretan. Aitzindaria izan da berdintasunean, eta bazkide emakumezkoak onartzen Elgoibarko lehenengo elkarteak izan da. 1982an sartu ziren emakumezkoak bazkide, eta 2007an lehendakaria emakumezkoa izan zen estreinakoz. Aitziber Gorrotxategi izan zen Elgoibarko elkarteetako lehen lehendakari emakumezkoa.

AUZOKO FESTAK

Abuztuaren 10a da San Lorentzo Eguna, eta horren bueltan antolatzen dituzte auzoko jaiak. Elkarteak 1972an hasi zen festen antolakuntzan laguntzen, eta 1979an bere gain hartu zuen festen antolakuntza oso-osorik. Bakailao jana, *polleixako* oilaskoa, bertsolariak, erromeria, Haritz dantza taldekoen dantzaldia, umeentzako jolasak... denetik egon ohi da eta herritik jende asko joaten da Sallobenteko jaietara. 2015. urtetik, autobusa ere jartzen dute, herritarrek autorik har ez dezaten. Aldaketen eta beharren arabera, elkarteak berak ere jaiak antolatzeko modua egokitu egin behar izan du. Auzoko jaiekin batera, sanbartolomeetan sagardo lehiaketa ere antolatzen du elkarteak 1989. urtetik.

AUZO SENTIMENDUA

1998ko ekainaren 20an Artazo baserriak su hartu zuen, eta hango familiak dena galdu zuen. Egun hartan etxetik kanpo zeuden, eta

Urteurrenako lan batzordearen lana nabarmendu du Jasone Osorok, 'Sallobenteko Elkarteak 50 urte' liburua egileak

bizilagun batek ohartarazi zien ganbara sutan zegoela. Iristerako, dena kiskalita zegoen. Sallobente elkarteko zuzendaritza batu zen, eta ezohiko batzarrean erabaki zuten artazoarreki dirulaguntza ematea. Jai batzode bat eratu zuten, hainbat ekimen antolatzeko. Aurrezki Kutxetan kontuak zabaldu zituzten, errifak saldu eta



50. urteurrenako antolatzeko lan-batzordea.

jaialdi bat antolatu zuten. Auzoak bat egin zuen artazoarren ezbeharrarekin, eta "diru kantitate polita" bildu zuten haientzat. Pozik geratu zen lan batzordea, eta familia, eskertuta. Auzo sentimendua indartsua izan da beti Sallobenten.

Jasone Osoro idazle eta kazetari elgoibartarrak jaso du elkartearen historia liburu batean eta handik atera dugu erreportaje honetarako informazioa, baina askoz gehiago dago liburuan. Osoro bera ere auzotarra da, eta "bihotzetik" idatzi du liburua: "Niretzat oso aberasgarria izan da, elkarteari buruzko liburua izan den arren, auzotarrak ezagutzeko aukera izan dudalako". 17 lagun elkarrizketatu ditu, eta 17 istorio jaso ditu. Lutxi Arregik bideora eramán ditu testigantza horiek, eta Jasone Osorok paperera. Hala ere, lan honen atzean urteurreneko batzordea egon da, eta Osorok haien lana nabarmendu du, meritua haiena izan dela esanez: "Sekulako lana egin dute, izugarriko ilusioarekin. Ordu pila bat eskaini dizkiote urteurrenari, eta hori izan da zapatuko ospakizunaren oinarria ere". Zapatuko ekitaldia hunkigarria izan zela nabarmendu du Osorok, "oso polita eta profesionala": "Ondo egindako lanaren emaitza izan zen, barre egin genuen, negar ere bai, eta hunkitu ere egin ginen".



Jaietarako prestatzen zuten arku. Ongi etorri eta ongi joan kartelak jartzen zituzten albo banatan.

ETORKIZUNA

Oparoa izan da Sallobenteko elkartearen 50 urteko ibilbidea, eta gaur gaurkoz bizirik dirau, baina ez dauka garai bateko osasunik. 64 bazkide ditu elkarteak gaur, baina Itziar Aranberri elkarteko lehendariak esan duenez, ez dago garai bateko mugimendurik. "Koronabirusaren pandemiak jendearen ohiturak aldatu egin ditu, eta lehengora itzuli ezinda gabilta. Ez da lehen beste jende joaten elkartera, eta kontsumoa apalduta dago". Aurrera begira mekanismoren bat edo pentsatu beharko dutela gaineratu du, jendea animatu dadin. Hala ere, itxaropenerako atea zabaldu zaie, azken urteetan bazkide gazteak sartu direlako elkartearen, eta horrek etorkizunerako argi izpi bat ematen dio elkarteari.



Elkartean bazkideak afaritan.

HARITZ AZURMENDI

'Jakin'-eko kidea

✍ Ainar Argoitia / 🗣 Asier Orbea



“Normala izatea bera ere justifikarazi egiten digute euskaldunoi”

Filosofia ikasketak egiten ari zela "kasualitatez" jakin zuen Haritz Azurmendi Arruek (Albiztur, Gipuzkoa, 1991) bere abizen bera zuen irakasle bat bazegoela EHUn, Joxe Azurmendi Otaegi. Irakasle bulegoen korridoreetan ikusi zuen haren izena, baina ez zitzaion irakasle egokitu. Joxe Azurmendi irakasle izan ez zuen lehen promozioiko ikaslea izan da Haritz eta berea da Joxeren pentsamenduari buruzko lehen doktorego tesia. Nazionalismo teoriak eta Joxe Azurmendiren obra aztertu zituen tesian, bereziki haren nazio ideia eta abertzaletasun kulturalaren artean dagoen lotura seinalatuz, eta horixe izan zuten solaserako gai ere Lorea Agirre 'Jakin'-eko zuzendariak eta biek, irailaren 28an, Hasier Etxeberriaren omenez Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak antolatu zuten 'Biba Hasier!' jardunaldian. Biek ala biek azpimarratu zuten filosofia guretik landu izana zor diogula Joxe Azurmendiri, euskararen alde egiteko zeri lotu behar gintzaion arrazoitzea; ordura arteko arrazoi erromantikoen eta esentzialisten gainetik, euskarara lotzeko arrazoi politiko bat bilatu izana alegia. Bideoa: barren.eus.

'Euskarazko ikerketa salbuespena da, salbuespena da euskal pentsamenduari buruzko interesa piztea, salbuespena delako graduatan euskal pentsamendua ikustea'. Zure berbak dira. Egin dezagun ahalegina pizteko interesa. Euskal filosofo ezagunena izango da beharbada Azurmendi, baina zer gehiago dakigu hari buruz? Nor da?

Joxe Azurmendi pentsalaria da, pentsalari handia, bitzta eman duena euskalduntasunari buruz pentsatzen eta horren gainean ekiten. Belaunaldi bateko kide da, euskaldunak ordura arte zuten irudiari buelta eman zion belaunaldiko kide. Joxek esan zuen euskalduna ez dela jaiotzen, egin egiten dela, eta esan zuen, baita ere, euskarak, beste hizkuntzek bezala, balio duela edozertarako. Alegia, bidea jarriz gero, gauza normal bat izan daitekeela garaian garaian dauden eduki eta gaiak euskaraz ematea, balio dezakeela euskarak filosofiarako, Twitcherako, Instagramerako... edozertarako.

Zer zor diogu Joxe Azurmendiren belaunaldiari?

Hiltzera kondenatua zegoen herri batean

sinetsi izana eta hordagoa jo izana etorkizuna irabazteko. Joxek eta bere belaunaldikoek 20 bat urterekin ikusi zutena zen euskara ez zela esistitzen, ez behintzat kultur mailan; ikusi zuten euskara zela bazterrekoen, pobreen eta ezjakinen hizkuntza. Herentzian jaso zuten ideologia espainiar inperial hori sinisterra ere iritsi zen Joxe bera, bai eta gero eskema horiek deseraikitzen ere. Eta horren kontrako erreakzioa da munduko gauza guztiak euskaraz eman nahi hori, eta ez kapritxoa duelako, baizik eta injustua ikusten duelako komunitate bat zapaldua, ezjakindua eta baztertuta izatea.

Kultura modernizatzeko erronka hartu zuen belaunaldi hura izan zen beharbada ikastera kanpora joateko zortea izan zuen lehen belaunaldia. Horrek eraginik izan al zuen?

Ez dakit lehenengo belaunaldia izan zen irtetzen; baina, bai, ordura arte, elite bat bakarrik irtetzen zen kanpora eta Joxek eta bere belaunaldiko askok, apaiztegitik pasatakoak izanda, aukera izan zuten European zehar unibertsitate ezberdinetan hezteko. Garai hartan, 67-68aren bueltan, oso giro iraultzailea, ezkerrekoa eta bizia zegoen European eta hori dena zuzenean bizitzeko aukera izatea lagungarri izan zitzairen gero Euskal Herrian emanda zeuden eskema horiek birplanteatzeko, beraienetik pentsatzeko eta abar.

Euskal kulturaren azken 50 urtetako funtsezko momentu guztietan egon da Azurmendi. Zer marka du bere pentsamenduak?

Joxeren eta bere belaunaldikoen pentsamendua euskararen aldeko hautu kontzientea izateak markatu du. Jende honek bizitzako proiektu bezala hartu zuen euskaraz egin ahal izateko borrokatzea, eta hori bada gauza interesgarri bat gaur egundik begiratzeko ere, gaur egun ere ematen zaigun honetan jarraituz gero oso esparru gutxi gelditzen zaizkigulako euskaraz egiteko modukoak. Sortzen zaizkigun espazio, esparru eta adierazpen berri guztietan borrokatu egin behar dugu euskaraz egitea eta horrek lan militantea eskatzen du. Aurrekoan irakurtzen nuen bideo jokoak euskaraz egoteko ez dagoela berezko joerarik eta zale batzuek militanteki itzulitako bertsiok daudela gehienbat euskaraz. Adibide bat baino ez da.

"Sortzen zaizkigun espazio, esparru eta adierazpen berri guztietan borrokatu egin behar dugu euskaraz egitea eta horrek lan militantea eskatzen du"

Ez zegoen lekuan, sortu egin zuten. Gaur egun ez al dago dena sortua den uste halako bat?

Nik uste dut egon zela halako optimismo bat Frankismotik zetozenek sortu zituztelako hurrengo hamarkadetan funtzionatu zezaketen proiektu eta egitura batzuk. Kontua da hori oso lotua egon zela belaunaldi bati eta munduaren egoera bati. Orain, globalizazioan, gauza batzuk finkatu direla ikusten du gure belaunaldiak baina egoera globalari erantzuteak krisi bat sortzen duela euskararen inguruan, eta berriz ere garamatzala zertarako izan behar dugun euskaldun galdetzeraz. Zertarako izan behar dugu euskaldun, nire gurasoek eman didaten mundu horretarako bakarrik ala niri gustatzen zaidan hori euskaraz emateko ere lotu behar naiz borrokaraz? Lozorroan baino gehiago, krisian gaudela esango nuke.

Hizkuntza, kultura eta herritartasuna. Nola ixirikordatzen dira Azurmendiren pentsamenduan?

Nahiko arriskatua izaten da metaforak erabiltzea, baina metafora bat daukat horri erantzuteko. Jo dezagun hizkuntza plaza bat dela eta hiztunak plaza horretara sartzen direla. Plaza emandako zerbaite da, bere egitura dauka, bai eta urteetan landutako elementuak ere: koskak, pitzadurak eta abar. Eta nolakotasun horiek erraztu edo zaildu egingo dituzte euskaraz egin nahi ditugun praktikak. Plazan, joera naturala izango da pitzadurak ekiditea, emandako horretan moldatzea, baina egongo da baita ere pitzadura dagoen leku horretatik bertatik pasa nahi duenik edo plaza berrantolatu nahi duenik eta horretarako lana egingo duenik. Eta agian lortu ere egingo du traban dauden zenbait elementu kentzea, leuntzea edo moldatzea. Emandako hori aldatu nahi izatea litzateke kulturaren irudia, kultura horixe delako: hartu duzun hori erreproduzitzea, edo bestela, eraldatzen saiatzea. Plaza berean ibiltzeagatik beragatik jendeak halako kideasun bat garatuko du bestalde; jendeak



erreferentzia batzuk konpartituko ditu: jakingo dute pitzadurengatik non den erosoago ibiltzea, zein leku den hobea itzalean egoteko... eta hori litzateke herritartasuna.

Nazio etniko eta zibiko dikotomia erabilia ere hor dugu. Zenbatetan ez ote diguten euskaldunoi arrazista izatea leporatu euskararen alde egiteagatik. Zer duzu esateko?

Eztabaida hori planteatzeko modua bera ere oso politikoa dela, gu jartzen gaituztelako defendatu beharrean marko horretan. Esaten digute euskara defenditzea etnikoa dela, baina hori esaten digutenek gaztelania emanda dutelako esan dezakete hori, ez dutelako justifikatu ere egin behar zer hizkuntzatan egingo den normalki. Eta guri, berriz, normala izatea bera ere justifikarazi egiten digute. Esaten digute normala, zibikoa, egokia, hau dela: orain daukaguna, eman digutena, eta nahi badugu, toleranteak izango direla gurekin eta toleratuko digutela euskara gure lekutxo horretan, baina ez joateko euren normalitatea eskatzera gure hizkuntzarentzat, bestela etnikoak izango garelako. Eta egoera horretan batzuetan gertatzen zaiguna da katigatzen garelako beste mesedetan eraikitako diskurtso horretan eta sinisterra ere iristen garelako, ez dugulako nahi moralki okerra den alde horretan koka gaitzaten. Horregatik saiatzen gara zibiko purua izaten, inor ez denean, eta uzten ditugu tresna interesgarriak exekutatu gabe.

Eztabaida kontzeptuala baino gehiago botere harremanetik sortua dela alegia.

Bai, kontzeptualki nazio zibikoa sortu zenean ere, sortu zenean nazio iraultzailea edo

frantsesa, inork ez zuen zalantzan jarri nazio horrek hizkuntzaren bat hitz egingo zuela, ez delako posible hizkuntzarik hitz egin gabe nazioa moduko komunitate bat irudikatzea, baina ez zuten esplizitatu zein hizkuntzatan egingo zen, eta hori tranpa da. Garai hartan boterea zeukatenek eta nazio frantsesa pentsatzen ari zirenek egin zezaketen hori, ontzat eman zutenek frantsesa zela arrazoimenaren hizkuntza.

Tresna politikorik gabe egin dakioko aurre horri?

Tresna politikoa behar dira zalantzarik gabe, baina kontua da tresna politikoa horiek eman zain gelditu zaitezkeela edo sor ditzakezula ahal den neurrian, daukazu boterearen arabera. Joxeren belaunaldikoei Frankismo betearen sortu zituzten instituzio batzuk; ez ziren behar bada estatu tresnak, baina bai oso oinarri sendoko egiturak. Sortu zuten UEU adibidez, euskal unibertsitatea irudika dezakeen komunitate edo egitura.

Gizartea, gizarte mugimenduak, aldatuz doaz, baina Azurmendiren ideiek bizirik jarraitzen al dute?

Joxe Azurmendiren lanek daukaten gauzarik onena da oso jantziak direla. Joxek bere ideia propioak baino askoz ideia gehiago ekartzen ditu. Askotan bere pentsamendua ere nahiko ezkutuan uzten du interesgarriagoa irizten diolako erreferentzia ezberdin asko ekartzei eta eztabaida sustatzeari. Gaur egun, nazioari buruz edo hizkuntzari buruz esan zituenak irakurtzea oso lagungarri da eztabaidetara jantziago hurbiltzeko. Joxek berak heldu zien auziek bizirik jarraitzen al duten? Nik uste dut Joxek-eta erabili zuten gogoeta hura, 'Zergatik eta zertarako euskaldun?' galdera planteatzen

*"Esaten digute euskara defenditzea
etnikoa dela, baina hori esaten
digutenek gaztelania emanda dutelako
esan dezakete hori"*

zuena, gaur egun ere badagoela. Badago sektore bat euskaltzalea dena eta euskararen alde egin nahi duena, baina eman nahi diona horri zentzu sozialago bat, politikoago bat; eman nahi diona formulazio propio bat. Gazte talde ezberdinak ikusten ditut euskararen inguruan gogoetan, eta sumatzen dut haiengan Joxek-eta beren garaian izan zuten behar hori, sentimendutik argudiaketara edo plano sozialera pasatzekoa. Agian ez Joxek-eta egin zuten formulazio berbera errepikatzeke, baina iruditzen zait han jokoan jarri zena ezagutzeak gaurkotasan handia daukala eta haiiek izan zituzten kezkek eta gogoetek, gaur egun ere, oso-oso pertinente izaten jarraitzen dutela, eta ez horrenbeste erantzunengatik, baizik eta galdera eta planteamenduengatik. 60ko hamarkadan, kultura modernizatu beharra zegoen, eta gaur egun eguneratu egin behar da: pantailetara eraman, gai berrietara ireki ... eta behar hori egoteak esan nahi du gaur egun dauzkagun tresnak, gure aurrekoek eraiki zituztenak ere bai, berritu beharko direla.

Baikorren ala ezkorren taldekoa zara zu?

Ez dakit ezkortasun mailan panteatu behar den hau. Nik uste dut gehiago dela Joxeren pentsamendua bizi den seinale. Bada beste kontu bat Joxek berak askotan esaten duena: zergatik eta zertarako euskaldun eztabaida Euskal Herri osora zabaldu zen 60ko hamarkadan, baina oso zirkulu txikia zen zenbakiz eztabaidan jardun zena. Agian mitifikatuta daukagu garai hura, eta beharbada gaur egun orduan baino jende gehiago dago auzi berari buruz pentsatzen. Ez dago baikorra izateko sekulako arrazoirik, baina ezkorra izanda ez da gehiago irabazten.

Jon Maiak erdal komunitateari zuzendutako hitzaldia ematekoa zuen aurrekoan Elgoibarren, baina gerturatu ziren denak euskaldunak izan ziren. Nola egin genezake komunitate erdaldun hori euskarara ekartzeko?

Ez dakit. Maiari berari irakurri nion Twitterren kontu hori eta eman zidan zer pentsatua. Euskaldunon komunitatea abegikorra egin nahi dugu; erakutsi nahi dugu egin daitekeela bidea jendea ez dadin komunitate horretatik kanpo edo handik egotzia sentitu, eta iruditzen zait irekitasun maila horretan, etniko izatetik oso-oso urruti dagoela gaur egun euskalduntasuna

ulertzeko dugun modua. Politikoki ez dakit zenbateraino den eraginkorra pentsatzea euskaldunon akatsa dela erdaldunak ez gerturatzea, euskal kultura hain ezkatututa dagoenean, eta oraindik, askotan, geure burua defenditu beharrean gaudenean. EITBn, bi komunitateen arteko zubia izateko sortu zuten kanalean euskarak duen karakterizazioa eta presentzia ikusita, ez dakit euskaltzaleon eta euskararen alde lanean ari garenon erantzukizuna ote den, lehen-lehenik, komunitate erdaldunarengana ez iristea. Behar hori gizarte osoarena da, eta beraz, gizarte osoan eragiteko gaitasuna duten botereguneena ere bada, edo horiek erantzukizun askoz handiagoa hartu beharko lukete. Egia da egoera injustu horri erantzuteko beharrik handiena euskaltzaleok daukagula, baina badago, baita ere, tranpan erortzeko joera. Abegikor eta ireki planteatu behar dugu, bai, baina badaude beste instantzia batzuk askoz gehiago egin dezaketenak jendeari erakusteko euskalduna ez dela Albizturren bizi den zer arraro bat. Euskalduna erdaldunekin hizketan ari da, baina beharbada erdaldun asko ez dira konturatzen, ez dutelako belarria jartzen.

Mundua guretik pentsatzera animatu gintuen Azurmendik. Zeri ekin beharko genioke?

Joxeren belaunaldiari gertatu zitzaiona gerta ez dadin, lehenengo eta behin, transmisioari duen balioa eman beharko genioke, belaunaldi berriek eta mundua gurekin pentsatu dezaketenek jakin dezaten egon direla beste saiakera batzuk lehenago. Gauza interesgarriak badauzkagu zabaltzeko. Jakin-ek, esaterako, lan handia egin du euskal pentsamenduz idatzitakoa digitalizatzen, eta hor daukagu, adibidez, Armiarma ere, literaturaren transmisiorako sortutako ataria. Curriculumean ere badirudi aldaketa batzuk egin direla, baina horrelakoak egiturazko bihurtu arte, beti ibiliko gara arrastaka.

Gaba beltza antolatu dute Elgoibarko Hezkuntza Mahaiko eragileek, garai bateko usadioen usainean

Urriaren 31n Arimen Gaua ospatzeko ohitura Euskal Herriko txoko askotan oso zabaldua zegoen sasoi batean. Iluntzean haur eta gazteek bide bazterretan arbi eta kalabaza hustuetan kandelak ezkutatzeaz gain, etxez etxe eske errondak egiten ziren, neguan ospatzen diren beste jai ezagunetan bezala, eta usadio horren esentzia berreskuratu nahi dute orain Elgoibarren Hezkuntza Mahaira batutako eragileek elkarlanean. Asmo horrekin antolatu dute Gaba beltza.

Horren barruan, urriaren 26an, kalabazak hustuko dituzte udal ludotekan, eta biharamunean, mozorroak prestatuko dituzte. 16:30ean bilduko dira bi egunetan, lanerako. Hilaren 28rako, berriz, ibilaldi beltza iragarri dute, eta familian parte hartzeko proposatu dute. 19:30ean abiatuko dira Kalegoen plazatik, oihal eta arropa zaharrak jantzita, eta Maalara arteko bidea egingo dute elkarrekin. Tarte horretan kaleko argiak itzaliko ditu Udalak eta erakuslehoak Egur arte tailerreko ikasleek egindako artelanekin egongo dira apainduta. Ibilbidean zehar, herriko zenbait eragilek, tartean Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak, adibidez, hainbat ekintza egingo dituzte, girotzeko. Bukatzeko, Maalan, ekitaldi batekin emango diote azkena. Horretarako, 18:00etatik aurrera, Kalegoen plazan, atontze tailerra jarriko dute. Oihalak eta margoak eramango dituzte antolatzaileek han mozorrotu nahi dutenentzat.



'Kanela, kalabazak eta gatxak' ipuinaren eta 'Coco' filmaren emanaldia,

Herriko Antzokian

Azaroaren 2an, berriz, Atxutxiamaiak Udalaren laguntzarekin sortu eta Azpeitiko Kulturaz Kultur Kooperatibak digitalizatu duen *Kanela, kalabazak eta gatxak* ipuina proiektatuko dute Herriko Antzokian. Heriotza bera eta heriotzak lantzeko modu ezberdinak landu dituzte eskoletan ipuin hori baliatuta. Ondoren, *Coco* filma emango dute. Lee Unkrich zinema zuzendariak zuzendutako eta Pixarrek ekoiztutako fantasiako animazio filma da *Coco* eta Mexikoko Heriotzaren Eguneko tradizioetan oinarrituta dago.

Sigmaren itxierari buruzko liburua aurkeztuko dute gaur Elgoibarren

Elgoibar, fin de trayecto liburua aurkeztuko du gaur, 19:00etan, Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi-gelan Jose Mariano Cadenasek (Gaztela eta Leon, Espainia 1957). Sigma enpresaren itxiera-prozesuan Euskal Herrikan kanpoko langileek, sukurtsaletakoek, tratu "diskriminatzailea eta axolagabea" sufritu zutela kontatzen du. Pitxintxun dute salgai liburua.

'Protegerse en el siglo XXI' liburua idatzi du Jose Ignacio Ibañez elgoibartarrak

Jose Ignacio Ibañezek terapia osagarriak aztertzen ditu. Terapeuta da, eta *Protegerse en el siglo XXI* liburua argitaratu berri du trofologiaren jatorri eta aplikazioen inguruan. Trofologiak elikagaien generoak aztertzen ditu, eta zer ordenatan jan behar den, elikagaiak nola nahastu behar diren eta prebentzio-medikuntzarako zer ezaugarri dituzten azaltzen du.

'Elkano eta euskal marinela munduari lehen biran' hitzaldia emango du Javier Elorzak

Pandemiagatik etenda geratu zen *Euskal Herria Aro Modernoan* hitzaldi-zikloari segida ematera datoz Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea eta Ilumberri Achademia, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin, eta urriaren 26rako, Javier Elorza historialariaren hitzaldia lotu dute. *Elkano eta euskal marinela munduari lehen biran* izeneko hitzaldia emango du Elorzak, lehen mundu bira haren 500. urteurrena bete dela probestuta. Hitzaldian, bidai heroiko eta gatazkatsu haren testuingurua eta Juan Sebastian Elkanoren eta berarekin bidai horretan zeuden gainerako marinela euskaldunen nortasuna eta zeregina landuko ditu Elorzak.



Horrekin batera, bira honek Aro Modernoan izan zuen aldarri historikoaz ere mintzatuko da. Hitzaldia Kultur Etxeko hitzaldi-gelan izango da, 19:00etan hasita.

'Sexberdinak' antzezlana taularatuko du gaur

Tanttaka konpainiak, Elgoibarren



Mireia Gabilondok zuzendutako lana da *Sexberdinak*, eta Telmo Irueta eta Aitziber Garmendia ariko dira Nico eta Ana bi protagonisten azalean sartuta. Garun paralisia duen Nicoren eta amatasunaren gaiarekin topo egiten duten Anaren arteko kontakizuna da obra. Garun paralisia egunero-egunero topatzen dituen arazoak bistaratzeko ditu Nicok, eta sexualitatea nahiz maitasuna nola sentitzen dituen ikustarazten du. Anak, berriz, hain bistakoak ez diren paralsiak erakusten ditu. Herriko Antzokian emango dute antzezlana, 19:00etan hasita.

Udal Musika Bandak eta musika eskolako banda gazteak kontzertua emango dute domekan Elgoibarren

Domekan, urriaren 23an, kontzertua emango dute Udal Musika Bandak eta Inazio Bereziartua musika eskolako banda gazteak Herriko Antzokian (12:30). Juanma Saez eta Iker Nausiak zuzenduko dute kontzertua eta honako piezak interpretatuko dituzte: *Colliding Visions* (B- Balmages), *Aladdin* (A. Menken), *Eperra* (A. Duhalde), *A Joyful journe* (R. Sheldon) *Thème Varié* (W. Hautvast), *Broken Sword* (K. Hoube).

Maite Franko ipuin kontalariaren saioa Mendaron, hilaren 27an

Arimen gaueko ospakizunen harira, Maite Franko ipuin kontalaria ekarriko du Mendaroko liburutegiak herrira urriaren 27an. 4 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzendutako saioa izango dela jakinarazi dute antolatzaileek eta saioa doan izango dela, liburutegian, 17:45ean. Saiorako gonbidapenak liburutegian bertan eskuratu behar dira.

Ilargi Arregi bateria-jotzailearen masterclassa antolatu du EMEk hilaren 27rako



👊 Eider Iturriaga

Ilargi Agirre Iturregi (Zarautz, 1998) bateria-jotzailea eta irakaslea da, eta urriaren 27an, masterclass bat emango du Elgoibarko musika eskolako auditoriumean, EME Elgoibarko Musikarien Elkarteak eskatuta (19:30ean hasiko da). Elgoibarko Udalaren eta Inazio Bereziartua musika eskolaren laguntzarekin antolatu du saioa EMEk.

Perlak talde zarautzarrean hasi zuen musika ibilbidea Agirrek, post punka eginez, eta bi disko argitaratu zituzten: *Perlak* eta *Itzaletatik*. Geroztik, hainbat proiektutan ibili da bateria-jotzaile gisa. Screaming George and the Hustlers, Belarmiñak eta Joseba B. Lenoirrekin hirukotean lehendabizi, eta ondoren, bi bateriako formatuan *Haiak izarra nahi haute* (2018) diskoan eta biran. Mice proiektuan ere jardun da, bai eta Idoia Hernandez piano-jotzailearen *Hatxe* proiektuko *Panpin hautsien dantza* ikuskizunean ere (2020), musika esperimental, klasikoa eta performancearen mundua batuz. Era berean, *Berria* egunkariko *Bi ahotsetara* atalean musikari buruzko zutabeak idazten ere aritu zen bi urtez, 2016tik 2018ra. Egun, Loatzoko musika eskolan ematen ditu eskolak eta zuzeneko emanaldiekin uztartzen du bere irakasle-lana. Birkir taldearekin *Inertzia* diskoa aurkezten ari da une honetan, eta Jose Luis Otamendi poetarekin batera, poesia eta perkusioa uztartuko dituen emanaldi bat ere estreinatuko dute aurki: *Landura*.

Bikustik taldeak kontzertua emango du, gaur zortzi, hilaren 28an, Herriko Antzokian



Jon Gurrutxaga (ahots nagusia eta gitarra laguntzailea) eta Patxi Zabaleta (gitarra eta koroak) osatutako bikoak, Bikustik taldeak, kontzertua emango du gaur zortzi, hilaren 28an, Elgoibarko Herriko Antzokian, Elgoibarko Udalak eskatuta. 19:00etan hasiko da kontzertua, eta sarrerak Herriko Antzokiaren webgunean eskuratu daitezke.

Angel Gil eskulturagilearen erakusketa zabalduko dute gaur Elgoibarren



Angel Gil (Burgos, Espainia, 1961) eskulturagilearen erakusketa zabalduko dute gaur Elgoibarko Kultur Etxean eta abenduaren 11a arte egongo da bisitatzeko aukera. Eskultura figuratiboa da Gilena, eta konta ezin beste erakusketa osatu ditu 1978an Eibarren estreinakoa jarri zuenetik. Haren obrari buruzko informazio gehiagorako: www.angelgilceramicaybronze.com.

Euskararen gaian, ezagutzatik gozamenera salto egiteko garaia dela esan du Bingen Zupiria sailburuak

Mundu mailako egoera politiko, ekonomiko eta sozialetik abiatuta, egungo Jaurlaritzaren politiketara arteko bidea egin zuen Bingen Zupiria Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburuak martitzenean, Elgoibarren. Nabarmendu zuen, ingelesaren nagusitasuna dela-eta, hizkuntzaren gaineko kezka Euskal Herriaz haragokoa dela; kezka ez dela gurea bakarrik, eta 82ko Euskararen legea onartu zutenetik gaur arte lortu denaren erreposoa egin zuen. Bizikletaren metaforma erabili zuen azaltzeko Euskalgintza etengabe eragin beharreko zerbeit dela, geratuko ez bada. Aitortu zuen egiteko zaila dela, baina aurrera egiteko aukerak badaudela, besteak beste, gazteen ezagutzamaila handia delako. Nolanahi ere, aurrera egingo bada, ezagutzatik gozatzerara pasatu behar dela azpimarratu zuen, eta aisialdian, kirolean, kultur arloan... eragin behar dela. Horren harira, Euskaraldia ariketa sozialaren garrantzia eta eragin-ahalmena ere aipatu zituen.

Kulturari dagokionez, azken 40 urteetan egindako ibilbidea aipatu zuen, eta saretzeak



izan duen garrantzia azpimarratu, besteak beste, zinean, antzerkian, liburutegien sarean... Lankidetzeta publiko eta pribatuen arteko harremanaz eta kulturgileen profesionalizazioaz ere jardun zen, baita kultura eta hizkuntzaren arteko harremanaz ere. Guggenheim museoaren 25. urteurrena aipatuta, bestalde, museoak gizarte arlo ezberdinetara ekarri dituen "onurak" zerrendatu zituen.

Idoia Ortegak Salenton jarri ditu erakusgai bere margolanak

Idoia Ortega Agotek azken urteetan egindako margolanak erakusgai jarri ditu Salento pizzerian. Hilaren 28ra arte egongo dira ikusgai.



Clara Mejias Barriosek bigarren saria eskuratu du Ermuko argazki lehiaketan

Clara Mejias Barrios elgoibartarrak bigarren saria eskuratu du Ermuko argazki lehiaketan, 200 euro dirutan. Ourenseko (Galizia) Bande urtegian ateratakoa da saritutako argazkia.





“Elkano eta euskal marinelak munduari lehen biran”

2019an 500 urte bete ziren Elkanok munduko lehen biraren abenturari hasiera eman ziola, gertaera benetan konplikatu, heroiko eta gatazkatsu baten ondoren. Hitzaldian bidaiaren testuingurua eta Elkanoren eta berarekin bidaiaria horretan zeuden gainontzeko marinel euskaldunen nortasuna eta zeregina landuko du.



Urriak 26, asteazkena
Kultur Etxeko hitzaldi-gelan
19:00etan

Hizlaria: Javier Elorza Maiztegi



Indartsu itzuli dira Morkaikoren umeentzako mendi irteerak



 Morkaiko M.E.

Ia bi urteko etenaren ostean, Elgoibarko umeentzako eta gurasoentzako mendi irteera sorta antolatzeari ekin dio berriro Morkaikok, eta Zirardamendira (468 metro) egin zuten aurrenekoa, domekan. Hego haizea egin zuen, epelegi akaso mendira joateko, baina lagun ugarik hartu zuten parte, 80 hurrek eta beste horrenbeste nagusik. Autoz Aiastiaraino igo ziren eta handik oinez joan ziren Zirardamendiraino. "Baserri, zelai eta baso tartean lasai-lasai Zirardamendira igo ginen. Tontorrean indarrak hartu, eta beherakoan, 36ko Gerrako aztarnak ikusi genituen", azaldu dute mendi taldeko kideek. Morkaikok Elgoibarko Ikastolarekin eta Herri Eskolarekin elkarlanean antolatzen ditu irteerok eta zortzi irteera prestatu dituzte maiatzera bitartean egiteko, hileko bat. Hurrengo irteera Kalbario gainera (248 metro) izango da, azaroaren 20an. Debaraino trenez joango dira, eta handik zortzi kilometroko ibilbidea osatuko dute.

Umeentzako antolatutako irteerekin gertuko mendi eta natur guneak ezagutzera ematea da Morkaikoren helburuetako bat, baina urrunagoko mendiak ezagutzeko irteerak ere antolatzen ditu. Urriaren 29tik azaroaren 1erako, adibidez, Aragoiko (Espainia) Guara mendilerroa irteera antolatu dute Eibarko Klub Deportiboarekin elkarlanean. Izen-ematea online egin daiteke morkaiko.eus web orrian.

Azaroaren 19an jokatu den Karakateko Igoera antolatu ahal izateko boluntarioak behar ditu Morkaikok. "Beharra oso konkretua da. Kaletik Agarre baserri pareraino bidegurutzak zaintzeko behar ditugu boluntarioak. Oso denbora tarte txikirako: 10:30etik eta 11:15era biartean

egiteko lana izango da. 11:00etan esandako bidegurutzan egon eta azkeneko parte-hartzailea pasatakoan, libre", azaldu dute egin beharreko lanaz. Laguntzeko prest daudenek, izen-abizenak eta telefono zenbakia eman behar dute, e-postaz, morkaiko@morkaiko.eus helbidera idatzita.



Elgoibartarrak podiumean 'Hiru Txikiak Trail' lasterketaren lehen edizioan


Artarrai Mendi taldeko zenbait bazkidek sortu dute Hiru Txikiak Trail mendi lasterketa, inguruko herrietako jendea Ermura hurbiltzeko, eta askorentzat ezezaguna izango den edertasun handiko ingurune batean barrena korrika egiteko aukera eskaintzeko. Ermuan hasi eta bukatu zen zapatuan Hiru Txikiak Trail mendi lasterketaren estreinako edizioa. 38 kilometroko ibilbidean Urko, Oiz eta Egoarbitxa mendiak igo zituzten parte-hartzaileek. Bi modalitatetan lehiatzeko aukera zuten parte-hartzaileek, lasterketan edo mendi martxan. 120 lagunek bukatu zuten lasterketa, eta 233 lagunek eman zuten izena mendi martxa egiteko. Lasterketari dagokionez, Mayi Mujika izan zen azkarrena emakumezkoetan. Mujikak 4 ordu 40 minutu eta 12 segundoan bukatu zuen proba. Lorena Guinaldo eibartarra sailkatu zen bigarren (4:48:48) eta Oihane Perez gernikarra hirugarren (5:02:37). Gizonezkoetan, Pello Berrizbeitia eibartarra gailendu zen (3:49:41). Irabazlearengandik 4 minutu eta segundo batera ailegatu zen Ermuko plazan zegoen helmugara Julen Olaizola ermuarra. Sergio Agirregomezkorta Uriarte elgoibartarra sailkatu zen hirugarren postuan (4:17:41). Lasterketako ibilbideak tranpa moduko bat zuela argitu du Agirregomezkortak. "Ematen zuena baino askoz ere gehiago egin behar zen korrika eta jendea erritmo bizian irten zen, oso indartsu, nahiz eta gero kilometroak pasatzen joan ahala, erritmoa apaldu behar izan zuten askok. Lasaia irten



nintzen ni, atzetik aurrera eginez. Bukarera juxtu xamar ailegatu nintzen arren, denboraldiari amaiera emateko sari bikaina lortu nuen, hirugarren postua. Gainera, podiumera nirekin igo ziren bi saltakariak lagun handiak ditut, eta oso polita izan zen podiuma beraiekin partekatzea". Agirregomezkortaz gainera, Juanan Martin elgoibartarra 13. postuan sailkatu zen (4:45:02) eta 99. postuan Roberto Garcia (6:59:21).

14 urtez azpiko Euskadiko futbol selekzioarako deitu dute Estanis Mugerza

Espainiako autonomia erkidegoetako selekzioen arteko txapelketak prestatzen hasi dira 14 eta 16 urtez azpikoen Euskadiko selekzioak. Euskadiko Futbol Federakundeak bi taldeok osatuko dituzten jokalarien berri eman du, eta Estanis Mugerza elgoibartarra da hautatuetako bat, 14 urtez azpikoen Euskadiko selekzioarekin aritzeko. Mugertza C.D. Elgoibar kirol taldeko Ohorezko mailako taldeko jokalaria da. Euskal selekzioek Urdulizen, Iparralde futbol zelaian, jokatuko dituzte lehen faseko partidak, azaroaren 18tik 20ra bitartean. Extremadura eta Balear Uharten kontra jokatuko dute.



Podiumerako atarian geratu da Leire Egaña Espainiako Ehiza Xehe Txapelketan



Aurten ere gertu izan du podiuma, baina laugarren postuarekin itzuli da etxera Leire Egaña ehiztari elgoibartarra Muneran (Albacete, Espainia) jokatu duten Espainiako Ehiza Xehe Txapelketatik. Guztira 24 ehiztari aritu ziren lehian 3.500 metro koadroko ehiza barrutian, joan den domekan. Fini Soriano ehiztari murtziarrak lortu zuen puntu gehien, 1.800, bost untxi eta eper bat ehizatzeagatik, eta bera da Espainiako txapelkun berria. Extremadurako ordezkari Maria Fernandez sailkatu zen bigarren, bi eper eta untxi bat ehizatuta; 1.350 puntu batu zituen. Gaztelamantxako Lola Abellanez egin zuen hirugarren, bost untxi ehizatuta (1.250 puntu). Leire Egañak gertu izan zuen hirugarren postua, lau untxi ehizatu baitzituen, baina iaz gertatu zitzaion moduan podiumera igotzeko atarian gelditu zen, gazi-goza den laugarren postuan. "Beste behin ere gertu izan dut podiuma, baina hala ere pozik dago eduki nuen parte hartzearekin. Bero handia egin zigun eta baldintza gogorrek eduki genituen ehizan aritzeko, bai ehiztariok eta baita txakurrek ere". Mintxetako ehiztaria birritan izan da txapelkunorde Espainiako Txapelketan (2018koan eta 2019koan), eta zazpigarren egin zuen iaz Campo de Criptana (Ciudad Real, Espainia) jokaturako txapelketan.

'Pyrenaica' sarietako bat jaso du Ainhoa Lendinezek blogeko artikulu batek izandako bisitengatik

Altsasuko Iortia kultur guneko areto nagusian ospatu zuten, urriaren 14an, Euskal Mendizaletasunaren XXVI. Gala, Euskal Mendizale Federazioak eta Altsasuko Mendigoizaleak taldeak elkarlanean antolatutako ekitaldian. Euskal Mendizale Federazioak eta *Pyrenaica* aldizkariak euren sariak banatu zituzten Galan, eta Ainhoa Lendinez izan zen sarituetako bat. Ikustaldi gehien izan dituen blog sarreraren saria jaso zuen Lendinezek, Astrazeneca izeneko sarreragatik (*barren.eus* komunitatean ere argitaratu zuen). Sariagatik "ezin pozago" dagoela esan du, eta euskarazko irakurle mendizaleei eskaini die saria. Ohi duten eran, hainbat lagun omentzeko baliatu zuten gala. Aurtengoan, Jesus Mari Garisoain Goñi *Txumarra* zena omendu zuten batetik, eta Axio Aranburu eta Joxemi Larrea Sakanako mendizaleek ere jaso zuten errekonozimendua.



LANA

Eskaerak

Adinekoak edo gaixoak zaintzeko prest nago, etxeetan, baserrietan... Titulua daukat. Autoa eta gidabaimena ere bai.
602 834 107

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai. Esperientzia daukat.
641 018 638

Elgoibarren jaio eta bizi den 49 urteko emakumea umeak zaintzeko prest. Esperientzia. Etxeko lanak ere egingo nituzke.
636 223 142

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. 5 urteko esperientzia daukat.
642 126 876

Umeak eta adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.
685 724 861

Adinekoak zaintzeko edo etxe, bulego zein lantegietan garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.
642 578 943

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. Etxeko langile moduan jarduteko prest.
643 977 786

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.
642 578 943

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan.
632 915 336

GARAJEAK

Marradun garajea alokatzen da Arregitorre 6an.
685 764 879

OSPAKIZUNAK

1950ean jaiotakoen kinto-ospakizuna urriaren 22an. 13:00etan bilduko dira Kalegoen plazan talde-argazkia ateratzeko. Ondoren, luntxa, Ibai Ondo erretegia. 14:30ean bazkaria, Sigma jatetxean. 70 euro ordaindu behar dira urriaren 20rako Kutxabankeko zenbaki honetan: 2095 5036 50 9121852949. Diru-sarrera egitean, izen-abizenak adierazi behar dira.

Eskaintzak

Goizean 7:15etik 8:15era ume bat ikastolara eramateko pertsona bat behar da. Arduratsua eta puntuala izatea ezinbestekoa.
660 056 240 (Whatsapez kontaktatu).

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enkainatutako Administrazioen Lantalde Komunitatea</p> <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosap@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitatean, barne-patio bat daukagu, etxejabeok bakarrik erabili dezakeguna. Patio horretara sarri eraikineko umeak sartzen dira jolastera. Komunitateko presidentek, baina, ohar bat jarri du atean esanez patiora ezin dela sartu. Jakin nahiko nuke presidentek egin dezakeen halakorik, gainerakooi galdetu gabe.</p> <p>Komunitateko presidentek jabekideek batzarrean hartutako erabakiak betetzen eta betearazten ditu, baina egia da legeak ematen diola maniobrarako aukera ere. Hala ere, ez du eskumenik zuk diozuna egiteko, guztiz ekimen arbitrarioa delako hori.</p> <p>Izan daiteke presidentek egin duen hori irtenbiderik egokiena, baina kasu horretan ere lehenengo batzarrera eraman beharko luke gaia.</p> <p>Aholkua: presidente baten eginbeharrak zehaztuta daude, eta hortik kanpoko edozer egin nahi badu, batzarrean proposatu beharko du lehendabizi, han eztabaidatu eta bozkatzeko.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	---

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.




Zorionak, **Gorka**, astelehenean 11 urte beteko dituzulako! Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Maiaren partez.



Zorionak, **Ane!** 3 urte potolo gure etxeko Mari Matrakak! Ederki ospatu genuen zure eguna! Muxu erraldoi bat etxekoen, eta bereziki, Beñaten partez.



Zorionak, **Zoe!** Zu bai zarela gure bizitzako oparirik handiena! Mila esker egunero ematen diguzun guztiagatik. Segi horrela, txapelduna!



Zorion on-onak, **Sara!** Ederki ospatuko dugu zure lehenengo urtebetetzea. Muxu handi bat etxekoen partez.



Zu, bai, zu, azkarra! Ziztu bizian, zazpi! Zorionak, **Izar!**

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



1951n jaiotako kinto-ospakizuna egingo dugu abenduaren 12an. 13:00etan bilduko gara parrokia parean talde-argazkia ateratzeko. Ondoren, poteoa hasiko dugu. Karakate jatetxean bazkalduko dugu, 14:30ean. 70 euro ordaindu behar dira azaroaren 6rako Laboral Kutxako zenbaki honetan: ES93 3035 0007 27 0071142692. Diru-sarrera egitean, ez ahaztu izen-abizenak zehaztea.

EXPRESS ESKAINTZAK!

BOSCH WTR85V91ES ARROPA-LEHORGAILUA

A++

599 €

- 8 kg-ko karga
- Bero-ponpa
- LED pantaila
- Vario soft danborra
- Zimurren kontrako funtzioa

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Lagunak Textil Hogarren, aurtan, berogailuan aurrezten lagunduko dizuten oherako arropa aukera zabala, zatoz eta bisita gaitzazu!

- ❖ %100 kotoia duten franelazko edo koralinazko izarak.
- ❖ 79€tik aurrera lumaz betetako nordikoak.
- ❖ Sherpa edredoiak, pisu gutxikoak eta bero handia ematen dutenak.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

21 BARIKUA

18:30 Erakusketa: Angel Gilen eskulturak. Abenduaren 11ra arte egongo dira ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

19:00 Antzerkia: 'Sexberdinak'. Herriko Antzokian.

23 DOMEKA

10:00 Bigarren eskuko azoka. Mendaroko frontoian.

11:00 II. Digimon TCG txapelketa. Kultur Kafean.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian.

24 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa taldea: 'Pornoa Vs. bizitza erreala'. Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan.

25 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra: 'Las ilusiones perdidas', liburua landuko dute Consuelo Carrererekin. Haizeak antolatuta, Udal Liburutegian.

19:00 Herri batzarra. Hizlaria: Rebeka Ubera. EHBilduk antolatuta, Kultur Etxean.

26 EGUAZTENA

18:30 Hitzaldia: 'Urrutiko amatasuna'. Norma Vazquezek emango du, gaztelaniaz. Lilan.

19:00 Hitzaldia: 'Elkano eta euskal marinelak munduari lehen biran'. Javier Elorzak emango du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

27 EGUENA

17:45 Maite Franco ipuin kontalariaren saioa, Mendaroko liburutegian, 4-8 urte bitarteko haurrentzat.

19:30 Ilargi Agirre bateria-jotzaileak master classa emango du. EMEk antolatuta, musika eskolako auditoriumean.

28 BARIKUA

18:00 Gaba Beltza. Atontze tailerra, Kalegoen plazan.

19:30 Ibilaldi girotua, Kalegoen plazatik Maalako parkera.

19:00 Kontzertua: Bikustik. Patxi Zabaleta eta Jon Gurrutxagak osatutako bikoteak kontzertua emango du. Herriko Antzokian.

JOLASAREN ASTEA**21 BARIKUA**

17:30 Jolas txokoak familian, 0-5 urte arteko umeak dituzten familientzat. Lekuederren.

17:30 Jolasa plazara! HH5-LH6 urte bitarteko umeentzat. Kalegoen plazan eta Bolatokian. Egur arte tailerra, Zubi Ondo xake taldea, Biraka, Inazio Bereziartua musika eskolaren elkarlanean.

20:00 Jolas gaubela. 2005-2010 urte artean jaiotako nerabeentzat. Udal Gaztelekuan.

22 ZAPATUA

18:00 Mariokart 8 **Deluxe Nintendo Switch txapelketa**. 2005-2010 urteen artean jaiotako nerabeentzat. Gaztelekuan. Izena eman behar da.



I.URTEURRENA

Agurtzane Unamunzaga Zorrozua

2021eko urriaren 25ean hil zen, 52 urte zituela.

**Guretzako urte hau gogorra izan da,
zure hutsunea ezin da bete.
Zure argia ez da sekula itzaliko,
gugan zara eta izango zara.
Betirako gure bihotzetan!
Maite zaitugu, etxeokak.**

Zinea

(Herriko Antzokian)



'El vasco'

22 zapatua:

19:00 / 22:15

23 domeka: 19:00

24 astelehena: 21:00

'Super maskoten liga'

23 domeka: 16:30

'Delante de ti' (VOS)

(Ongarri zinekluba)

26 eguaztena: 21:00

Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

URRIA

21 BARIKUA

22 ZAPATUA

23 DOMEKA

24 ASTELEHENA

25 MARTITZENA

26 EGUAZTENA

27 EGUENA

28 BARIKUA

Egunez

Arriola

■ Fernandez

■ Garitaonandia

■ Fernandez

Yudego

■ Oruesagasti

Barrenetxea

■ Ibañez

Garitaonandia

Iluntzean

Arriola

Yudego

Garitaonandia

Barrenetxea

Arriola

Garitaonandia

■ Fernandez:

Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00

Esther Mendinueta Berastegui - Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106

*Gure Etorkizuna,
Orain eraikitzen da.*

Ekonomia modernizatuz.

Sartu etorkizunaeraikiz.eus webgunean
eta ikusi gipuzkoarrok zer egiten ari garen
gure etorkizunaren alde.

Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN





Gloria Odriak ekarri digu erretratu zahar hau BARRENEKO erredakziora. San Bartolome jaietan ateratako argazkia da, 1947an. Garai hartan argazkilariak ibiltzen ziren kalean erretratuak egiten, eta jende askok aprobetxatzen zuen hori, familia-erretratuak ateratzeko. Ikus dezagun zeintzuk diren argazki honetan ageri direnak.

Goian:

Eugenia Arriola (†)

Marisol Odria

Antonia Soraluze (†)

Behean:

Begoña Arriola,

Jose Antonio Arriola

Gloria Odria.



Luis Ostolaza Zabaleta

2022ko urriaren 14an hil zen, 97 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Nahiz eta urrun joan mundu honetatik,
ez duzu alde egingo gure bihotzetatik.***

Etxekoak





errigora

errigora.eus

urriak 22 - azaroak 10

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

Bat egiteko garaia da

aek



Ikastolen Elkartea



Sortzen




*Eskatu saskiak eta lagundu
horien balioaren %25arekin
Nafarroa hegoalde eta
erdialdeko euskalgintzari.*



ELGOIBARREN


Gaba beltza

 **urriak 26, eguaztena**

16:30 EAN KALABAZA TAILERRA, UDAL LUDOTEKAN.


 **urriak 27, eguena**

16:30 EAN MOZORRO TAILERRA, UDAL LUDOTEKAN.

 **urriak 28, barikua**

18:00 ETAN KALEGOEN PLAZAN ATONTZE TAILERRA FAMILIAN (MOZORROTZEKO ETA AURPEGIAK MARGOTZEKO AUKERA).

19:30 EAN "IBILALDI BELTZA". KALEGOEN PLAZATIK MAALAKO PARKERA IBILALDI GIROTUA. **ONDOREN**, MAALAKO PARKEAN AMAIERA EKITALDIA.

 **azaroak 2, eguaztena**

17:00 ETAN "KANELA, KALABAZA ETA, GATXAK" IPUINA ETA "COCO" FILMA, DOAN. HERRIKO ANTZOKIAN. **ETORRI MOZORROTUTA!** FAMILIA BAKOITZEKO HELDU BAKARRA ETORTZEA ESKATZEN DIZUEGU.



Laguntzaileak:

